

EKINTZA KOMUNITARIOA /
BERRIKUNTZA SOZIALA /
PARTE HARTZEA /
GRABAZIOA SAKELAKOAZ /
ELKARRIZKETAK KALEAN /

ERREPORTARI EGUN BATEZ NIK MASHUP LEIOA

Ikus-entzunezko proiektu parte-hartzailea
Identitate, Bake eta Elkarbizitzari buruz.



Nik Mashup proiektu parte-hartzailea da. Bertan, euskal identitateari eta bere ezaugarri nagusiei buruzko hausnarketa- eta elkarrizketa-prozesuaren bidez, herritarren pertzepzio desberdinak ezagutzen eta aitortzen saiatu nahi da; hain zuzen ere, bere identitateaz eta honek gatazkaren eta elkarbizitzaren ikusmolde desberdinei eragiteko moduz dituzten pertzepzioak.

Nik Mashup proiektuaren helburua zera da: batetik, herritarrek euren identitateaz dituzten iritzi desberdinak plazaratzea eta ezagutzea eta, bestetik, elkarbizitzari laguntzen dioten elkarrizketa-espazioetan identitatea nola eraikitzen den aztertzea.

Proiektuak herritarrak inplikatzeko beren identitateaz eta ikuspegiaz, elkarbizitzari buruzko esperientziak eta itxaropenak hausnartzeko eta eztabaidatzeko, ikus-entzunezko elkarrizketak grabatzeko, eta esperientziak nahiz lekukotzak hainbat euskarri digitalen bidez komunikatzeko eta hedatzeko.



NOLA GAUZATZEN DA?

Sorkuntza Laborategiarekin ekingo zaio proiektuari. Tailer hau benetako espazioa izango da parte hartzeko, hausnartzeko, adosteko eta ikus-entzunezko eduki berriak sortzeko. Honek guztiak gure udalerriko elkarbizitza eta bakea birpentsatzen lagunduko du.


- 1. Hausnarketa eta elkarrizketa.** Bada euskal identitate bakarra?, edo asko eta anitzak dira?, nola eragiten dio identitateak pertsona bakoitzak Euskadiko gatazkaz eta elkarbizitzaz duen ikuspegiari?, nola egin dezakegu aurrera elkarrekin bakearen eraikuntzarantz?
- 2. Ikus-entzunezkoetan gaitu.** Parte-hartzaileak ikus-entzunezko elkarrizketak grabatzen trebatuko dira sakelako telefonoak erabiliz.
- 3. Adostasuna.** Azken produktuak gidoi edo galdera-sortaren itxura izango du, parte-hartzaileen artean adostua, eta herritarrentzako kale-elkarrizketak egituratzeko eta egiteko balioko du.
- 4. Elkarrizketak kalean.** Parte-hartzaileek, taldetan banatuta, pertsona anonimo batzuk elkarrizketatuko dituzte kalean, pertsona hauek gidoi edo galdera zehatz baten oinarriari buruzko testigantza eskainiko dutelarik.

EMAITZA

Leioako herritarrei egindako elkarrizketa batzuk eta prozesuaren garapena agertzen duen bideoa. Pare-hartzaileek sortutako edukiak web plataforma batean jasoko dira (nikmashup.org).

NORI ZUZENDUA DAGO?

18 eta 30 urte bitartean badituzu, animatu parte hartzera, izen-ematea dohainik da.



NOIZ?

Azaroaren 28an, ostirala, 16:00etatik 20:00etara eta azaroaren 29an, larunbata, 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 19:30era.

Parte-hartzaileak bazkaltzera gonbidatuta daude larunbatean.

NON?

Mendibile Jauregia (Mendibile auzoa, 42), Leioa.

HARREMANA ETA IZEN-EMATEA

(+34) 675.715.661
info@geuz.es

INFORMAZIO GEHIAGO

Nik Mashup <http://www.nikmashup.org>
Laburpen-bideoa <http://vimeo.com/64538304/>

Nik Mashup Leioako Udalaren proiektu bat da, Úbiqak diseinatua eta garatua GEUZen, Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroaren laguntzaz.

